



Burdinak Ortzaikako karobia martxan jarriko du asteburuan



Burdinako kideak Orexako errota eta zerrategia txukundu ostean.



Nafarroako Areson Santa Krutz ermita zaharrean indusketa lanak egiten.

Igande honetan eguerdiko 12:00etan hasita karea egiten hasiko dira Goiburuko Ortzaika baserriko karobian. Ekitaldia irekia da.

Andoaingo karobietan XX. mendearen hasieran karea egiteari utzi zioten. Asteburu honetan usadio hori berreskuratu dute Goiburun, Burdinaren eskutik. Ortzaika baserriko karobia 2006an berreskuratu zen, eta harrezkero urtero sua piztu izan dute. Bada, berrikuntza ikusgarria dakar larunbat eguadirako iragarri den ekitaldiak, karea egingo baita bertan.

Prestaketa lanekin larunbatean hasiko diren arren, ekitaldi nagusia igande eguerdiko 12:00etarako iragarri dute.

ETB edota RTVE hedabideen interesa piztu du Burdina taldearen ekimenak.

Karea historian zehar zibilizazio ezberdinek erabili izan dute, eraikuntzan eta nekazaritzan batez ere. Karearen ekoizpena beharrezko zen antzina-ko baserri giroko gizarte tradizionalan. Besteak beste, karea lurrarekin eta urarekin nahastuta baserriak zuritzeko erabiltzen zen, nekazaritzan soroak eta baratzak ongarrizko eta xomorroak akabatzeko.

Karobiak labea behar du, eta horrekin batera, kare-harria eta erregaia (egurra). Lehenbizi, karobia egurrez betetzen da, eta harriak jartzen zaizkio gaintetik; behe aldean karobia daukan ate-zulotik su ematen zaio. Horrela, harria kiskaltzen doa, eta kare bihurtzen poliki-poliki. Kiskaltze prozesua eten

Belabi kaletik edota Karrikatik tren azpiko tunela pasa eta bidean aurrera Villabonarako norabidean dago Ortzaika baserria eta ondoan karobia

ez dadin, karobia erregaiz eta harriz betetzen joian behar da.

Bertaratzen direnek karea egitearen prozesuari buruzko xehetasunak jasoko dituzte Burdina taldeko kideen partetik. Azken urtetan legez, larunbateko ekitaldian Burdina taldea hasieratik sustatu zuen Joxe Paulo Usandizaga zena omenduko dute. 2011n hil zen Usandizaga, Burdina taldeko kideengan hutsune handia utziz.


AUZOLANEAN

Ia urte osoan aritzen dira auzolanean Burdina taldeko bo-

luntarioak, ondare historikoa berreskuratzeko helburuz. Aurten han hemen aritu dira Andoaingo, Tolosaldeko eta Nafarroako zenbait herrietako karobiak, garbitokiak, burdinolak, ermita zaharrak, errota... berreskuratzen eta txukuntzen. Batzuk aipatzearen:

- **Asteasu:** XX. mendearen hasierako garbitokia berreskuratu Errekalde bailaran.
- **Elduaian:** Intturiagako (Leitzaran bailara) burdinolaren zati bat eta Errotazahar errota berreskuratu.
- **Orexa:** errota-zerrategi bat txukundu.
- **Areso:** Santa Krutz ermita zaharrean prospekzioak giza asentamendu baten arrastoen bila.
- **Andoain:** Olaberria eta Olazar burdinola zaharretan prospekzioak.

Urkiko dantzariak Gernikako ekitaldian



EAEko Lehendakarien aurrean dantza saioa eskaini zuten Andoaingo Urki dantza taldeko kideek.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Uribesalgo gogoan



Fernando Uribesalgo Andoaingo musikaria urriaren 5ean zendu zen, gaixotasun luze baten ondorioz.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

Zanpatuz elkartearen mendi irteera

Euskal Herriko erdigune geografikoa eta Beriain, Zanpatuz mendi elkartearen hurrengo irteeran.

Zanpatuz mendi elkarteak irteera antolatu du datorren urriaren 23rako, igandea. Euskal Herriko erdigune geografikoa ezagutzea da asmoa, Andia mendilerroan (Nafarroa), eta handik, Beriain tontor ezagunera osteratxoa egin (1.493

m.). Sakanan, Irañeta herrian hasiko da txangoa, eta handik, 1.300 metroko garaiera irabazi eta erdigune geografikoa ezagutu. Handik, aldapa sua-bea gaindituz, Beriain edo San Donatoko ermitaraino. Han bazkaltzeko aurreikuspena egin dute, norberak berarekin eraman beharko duen otordua. Bukatutakoan, Iherbain erpina gainditu (1.428 m.), eta Unanu herriraino jaitziko da taldea, bertan autobusa hartu eta Urnietara bueltatzeko.

IZENA EMATEKO EPEA URRIAREN 20RA BITARTE

Hitzordua goizeko 08:00etan izango da, Matxo taberna aurrealdean. Izena emateko epea urriaren 20an bukatuko da, eta izena emateko zerrendak Kantoñi eta Xauxar tabernetan, eta Ikasmin akademian egongo dira. Mendi elkarteak bazkide direnak 10 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko unean, eta bazkide ez direnak, aldiz, 15 euro. Irteera sei bat orduko da, maila ertainekoa,

eta Urnietara buelta arratseko 18:00etarako espero da.

Beriaingo irteeraren osteko agenda erabat zehaztu gabe du mendi elkarteak, baina hiruzpalau jarduerari gehiago antolatzeko asmotan dira 2016a bukatu aurretik: Gorbea mendira txangoa, neguko elurak iritsi aurretik, Adarramendiko igoe-ra gauez, eta urte bukaerako batzarrak, abenduan, bazkide eta federatu guztien aurrean urteko balantzea egin, 2017rako erronkak azaltzeko.

Urnietako Andoain futbolean

Erregional Preferente mailako bosgarren jardunaldia interesgarria izango da, Urnietako Andoain taldeen arteko partida jokatu baita. Euskalduna lidergotzan sendo ageri da, eta Urnietako berriz seigarren postuan.

[KIROLA, 7. ORRIALDEA]

XOXOKAKO JAIK 2016: ARGAZKIAK ETA BIDEOAK AIURRI.EUS GUNEAN

Auzo txiki, festa handi

Herri kirolez, antzerkiaz eta gastronomiaz gozatzeko aukera eduki dute goiburuarrek nahiz eta Urnieta eta ondoko herrietatik Xoxokara inguratu direnek.

Jai giro ederrean ospatu dira ekitaldi guztiak, eguraldia paregabea izan baita. Igande arratsaldean ohiko sagardo dastaketarekin eman zieten amaiera jaiiei.



Sokatiran bi taldeetako partaideak nahastu behar izan ziren, pisuan berdintzeko.



Zaku saltoan eta beste makina bat jokotan jardun zuten gazteek.



Urnietako sagardotegietako sagardoa edan zen Xoxokan.



Herri kirolen ostean, sukaldean jo eta ke aritu zen emakume laukotea.



Egues baserriko Joxe Mari Elolaren idiek irabazi zuten apustua.



Eneko Seinen astoek gogor jardun zuten, baina ezin izan zituzten idien plazak bikoiztu.

XOXOKAKO JAIK 2016: ARGAZKIAK ETA BIDEOAK AIURRI.EUS GUNEAN



Badute meritua Xoxokako gazteek urtero antzerkia antolatuz, nahiz eta antzezleriak ez izan. Gaztea irratia eta bogan dabilzan musika taldeen arteko lehiaketa parodiatu dituzte aurtengoan.



Apustuko lau segalariez gain, gaztetxoek ere erakustaldia egin zuten belar mozketan.



Maria Luixa eta Julen Gabirondok ezin izan zituzten Suharri Irazustabarrena eta Jon Otegi gainditu.



Xoxokako jaiak eta Sanmielak gogoan
Argazki eta bideo sorta zabala: Aiurri.eus webgunean ikusgai

URRIAREN 5EAN HIL ZEN FERNANDO URIBESALGO EDO

Uribesalgo gogoan

Musika zainetan berarekin zeraman herrikidea izan zen Fernando Uribesalgo Edo. Musika eta kalea maite zituen, eta biak maisuki uzartzen jakin izan zuen beti.



Fernando Uribesalgo Gora Kaletxiki txarangarekin.

Urriaren 5ean zendu zen Fernando Uribesalgo, gaixotasun larri baten ondorioz. Gorputzeko indarrek erantzun zioten arte, bere borondate irmoari eutsi zion: musikari izateari.

Aurtengo Goizuetako Ama Birjinaren jai aurreko Auroratan, abuztuan, irten zen kalera azkeneko aldiz. Orduan saxofoia jotzen aritu zen, Jexus Ibañezekin (esku soinu) eta Luziano (perkusioa) anaiarekin batera, Hernani eta Goizuetako abesbatzei konpainia eginez. Musika jo eta jo aritu zen, kalean gora eta kalean behera; bere saltsan aritu ere, halakoetan zoriontsu sentitzen baitzen. Pattal samar amaitu zuen ilunabarrerako, eta ohean pasa zituen azken egunak.

Gertukoek aipatu dutenez, heriotza heldu bezpera arte musika partiturak eskuetan zituela aritu zen, abesti bat instrumentuetarako nola edo hala moldatzeko ahaleginetan.

Fernando txiki-txikitan murgildu zen musikagintzan, Luziano anaiarekin batera. Luis Fracarekin ekin zion musika ikasketari hain zuzen, eta laster integratu zen Udal musika bandan. Musikarako oinarritzko ezagutzez jabetu, eta saxofoia eta baxua jo zuen batez ere. Zuzendaritza lanak ere ederki bete izan zituen hurrengo urteetan, txarangekin esaterako.

Gaztetan, 1964an Los Rubi talde ezaguna sortu zuen Luziano anaia eta Enrike Rubiños, Pako Perez eta Julian Zinkunegirekin batera. Sasoi hartan moda-modan ziren diskoteketan talderik ospetsuenetakoa bihurtu zen, Euskal Herrian zein inguruetako herrialdeetan. Taldeak, gazte jendeak gehien entzuten zituen abestiak jotzen zituen oholtza gainean. Aldi berean, rantxera estiloko errepertorioari ekin zion; musikari mexikarrek bezain ondo edo hobeto jotzeagatik nabarmendu zelarik. Sasoi hartan utzi zuen Uribesalgok bibote handi hori, eta harrezkero betidanik eraman zuen berarekin; bibotea bere itxura bereziki markatu eta identifikatu zuen elementua izan zen.

Los Rubik aldaketa ugari jasan izan ditu bere ibilbide luzean. Pako Perez, anaia eta hiruak izan dira oholtza utzi ez zutenak. 2014an taldean partaide izan ziren musikari guztiei omenaldia eskaini zieten Basteron egin zuten emanaldi berezian. Fernandok aurtengo Etxeberrietako jaietan jo zuen azkeneko aldiz Los Rubirekin.

Konta ezin ahala musika emanalditan hartu zuen parte, herri eta auzoetako jaiak alaituz, dantza taldeekin zein txarangekin. Urriaren 6an etxekoek eta lagunek azken agurra eman zioten elizan.

1964an Los Rubi mitikoa sortu zuen Luziano anaia eta Enrike Rubiños, Pako Perez eta Julian Zinkunegirekin batera

Jesus Ibañez eta Luis Treku (teklatuak), Luziano Uribesalgo (kantaria), Pako Perez (Tronpeta) eta Fernandok osatu zuten azken sasoiako Los Rubi taldea.

MUSIKARI NEKAEZINA

Musikari nekaezina izan da Fernando, eta azken urteetan musikari lotutako beste hainbat proiekturen sorreran eta sustapenean hartu izan du parte. 2004an, gaur egun Andoaingo musikaren panoraman ezinbestekotzat jotzen den Gora Kaletxiki txaranga sortu zuen herriko beste zenbait musikariarekin batera. Txarangak hasieratik eutsi dio Fernandok buruan zeukan gogoari: musika eskolan musika jole egiten diren gazteei irtenbidea eskaintzea eta Andoaingo bazterrak musikarekin alaitzea.

2014an, hain zuzen, Kaletxikiko jaietan omenaldi hunkigarria eskaini zieten txarangako sortzaileetako biri: Jesus Ibañezi (lehendakaria) eta berari (musika zuzendaria).

Fernando Uribesalgo izenburuko pieza ere sortu zuen Joxe Mari Oiartzabalek, bere omenez.

Andoaingo Errepublikanoen Bandako zuzendaria ere izan zen urtetan; hasierako bere bultzadizoari esker, egun, Errepublika garaiko doinu borrokalarriak lau haizetara zabaltzen jarraitzen du banda horrek, bai herriko kaleetan eta baita frankismoak zapalduetako omenez Etxeberrietan urtero antolatu

ohi den ekitaldian. Gogoratu behar da, bestalde, Kaletxikiko Kaldereroen azken aldiko berreskurapenean ere burubelarri ibili zela, musika taldeko zuzendari gisa.

JENIO ETA FIGURA

Jesus Ibañezek gaztelaniaz hain erabilia den esamolde horrekin definitu zuen, bere ondoan makina bat urte egin eta gero: "Jenio eta figura zen Fernando. Ezagutzen ez zuen edonork, harekin hizketan jarri, eta jasoko zuen aurrenko inpresioa seguru ez zela zuzenena izango. Baliteke kaskagor, erretxinatu eta jenio biziko pertsonaren irudia transmititza; baina bere nortasunean sakontzen hasiz gero, bihozbera eta eskuzabala zela jabetzen zinen berehala. Lagunen alde edozer egiteko gai zen horietakoa zen; eta zer esanik ez tartean musikarekin lotutako proiekturen bat bazegoen. Pasioz bizi zuen musika, eta zerua eta lurra mugitzen zituen baldin eta kontua musika kalera eramatea eta jendearengana hurbiltzea bazen. Hori bai, bere ironia maltzurra sekula ez zuen galduko".

HILETA ELIZKIZUNA

Musikagileek musikan doinurekin agurtu nahi izan zuten Uribesalgo, San Martin parrokan ostegunean egin zen hiletan elizkizunean. Korora igota, Javier Garaialde saxojoleak "Sweet dreams" balada jo zuen; Gora Kale Txiki txaranga Jose Mari Oiartzabalek konposatu berri duen "Gogoan zaitugu" abestia interpretatu zuen, eta azkenik, Goizuetako eta Hernaniko abesbatzek "Ave Verum" eta "Heriotza ez da bidearen azken" abestiak kantatu zituzten.



Agurreko unerik hunkigarriena meza bukatu ostean gertatu zen, elizaren kanpoaldean. Oiartzabalek zuzenduta, txarangak Fernando Uribesalgo izeneko musika pieza jo zuen. Txalo zaparradez erantzun zuten bertan bilduta zeuden Uribesalgoren senide, adiskide eta ezagunek.



MAITE OTERO GUIZÁN ANDOAINDARRA VIANAKO ERENTZUN IKASTOLAKO ZUZENDARIA DA

Andoaindik Nafarroa Oinezera

Igande honetan hainbat euskaltzale Viana aldera abiatuko da, bertako euskaltzaleekin batera Erentzun ikastolari hauspoa eman asmoz. Urteak atzera eginez, Maite Otero andoaindarrak Vianako bi-

dea hartu zuen hango ikastolan lanean hasteko. Bertan geratu, familia osatu eta gaur egun ikastolako zuzendaria da. Igandeko Nafarroa Oinez jaiaren atarian, elkarrizketa eskaini dio Aiurriri.

Andoaindar ugari abiatuko dira igandean Vianara. Eta zu zeu Maite noiztik bizi zara bertan?

Maite Otero. 1992tik Vianan nago, urte asko dira bai! Baina, oraindik ere nongoa naizen galdetzen didatenean Andoaingoa naizela erantzuten diet.

Zu bezalakoan bitartez lotura berezia sortu da Andoaingo eta Vianako euskaltzaleen artean...

M.O. Lotura batzuk egin ziren 1992ko Nafarroa Oinez hartan, eta 2007koan ere andoaindarraren laguntza jaso genuen. Eta ez dugu ahaztu behar Gabino Agudo Nafarroa Oinez hartako koordinatzaile izan zela, edota Fultxo Krespo Vianako ikastolan dugun irakasle andoaindarra.

Gerora, lotura bereziak egin dira hango eta bertakoen artean. Bada Vianako jendea ezkondu eta Andoainera joan dena. Eta nire kasuan, Vianan lan egiten hasi eta bertan osatu dut familia.

Igandera begira lan eta lan arituko zarete aste honetan...

M.O. Duela 18 hilabete lanean hasi ginen. Jarduera osagarri piloa antolatatu dugu, eta azken txanpa honetan azken



Maite Otero, ezkerretik hasita bigarrena, Vianako ikastolako zuzendaria da.

xehetasunak lotzen gabiltza. Ezin ahaztu gabe utzi eguraldi ederra lotu dugula iganderako.

Nola bizi dute jaien atarikoak zuen ikastolako ikasle eta irakasleek?

M.O. Nahiz eta antolaketa mailan mila kontu izan buruan, ikastolako kideak ilusioz gainezka bizi ditugu egun hauek. Ikasleak poz-pozik daude, iganderako entseguetan eta prestaketa lanetan.

Erentzun ikastolari buruzko datu batzuk emango al zenizkiguke?

M.O. Gure ikasleek lau hilabeterekin hasi eta hamabi urtera arte Vianan bertan ikasten dute. DBH egitera Oionera joaten dira, eta batxillergoa La Puebla de Labarcara. Arabako Errioxatik oso-oso gertu gaudenez, ikasleek heziketa osoa euskaraz jasotzen dute. 84 familia gara ikastolan, 110 ikasle denera. Familia eta guraso taldea ari gara jai antolatzen.

“Oso eskertuta gaude, eta bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet laguntza ematera etorriko diren andoaindarrak guztiei, guretzat haien guztien lana ezinbestekoa izango baita”

Ez dakienarentzat, aurten lehen aldiz Nafarroa Oinez bi ikastolen artean antolatuko da. Viana eta Lodosa Ebro ibaiaren aldeko bi ikastolak gara aurtengo antolatzaileak.

Andoaindik igandean bertan lan egitera abiatuko da herritar talde bat, eta astelehenean ere busez joango da beste talde bat. Andoaindarrak zarenez pozteko modukoa da, ezta?

M.O. Oso eskertuta gaude, eta ez da lehenengo aldia aurreko Nafarroa Oinez jaialdian ere laguntza handia jaso dugulako. Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet denei, guretzat ezinbestekoa izango baita.

Ebroko ibai ertzeko ikastolei laguntza emateko denon eskuak beharko ditugu eta sokatiran egiten den bezala, egin dezagun hartu, tenka, tira denon artean.

LABURREAN

Andoaingo dantzarien saioak

Urki dantza taldea ibilbideko 2. eremuan dantzan arituko da goizeko 11:00tan hasita. Ez dira Andoaingo ordezkaririk izango, Axeri dantzako hainbat kide ere 4. eremuan arituko baitira eguerdiko 13:00etatik aurrera.

Auzolanean igandean eta astelehenean

Igandean bertan hainbat andoaindar lanean arituko dira. Eta bihar-munean, astelehenean, ikastetxe ezberdinetako ikasle talde bat bilketa lanetan laguntzera abiatuko da.

Urki, Gernikan eta Vianan



Ainhoa Makazaga, Jon Arregi, Koldo Antolinez, Iratxe Larraz, Ainhoa Mujika, Garazi Albisu, Maider Callejon, Aiora Arregi, Leire Etxebarria eta Andoni Alonso Urki dantza taldeko kideak Gernikako Juntetxeetan, lehenengo Eusko Jaurlaritzan osatu zela 80 urte ospatu zutenean.

Lehenengo Eusko Jaurlaritzan 1936ko urriaren 7an eratu zuten Gernikako Juntetxean eginiko ekitaldian, Agirre lehendakaria buru zela. Efemeride hartatik 80 urte bete zirenean, ekitaldi instituzionala antolatu zuten Frankismoaren osteko le-

hendakari guztien parte hartzearekin. Hots, Garaikoetxea, Ardanza, Ibarretxe, Lopez eta Urkullu. Ekitaldi hartan Urki dantza taldeko hainbat kide parte hartu zuten. Gernikan ari-tu ostean, igande honetan Vianan arituko dira.



KIROL ALBISTEAK

Portugal aldean Braga hirian lortu du azken garaipena

Beñaten garapena bi gurpilen gainean

Egundokoa da Beñat Fernandez zortzi urteko mutil koskorrak iaztik egin duen aurreratzeari. Bera baino zaharragoak diren pilotuekin aritu arren, zirkuitu askotan bertako abiadura markak hautsi ditu. Bragako (Portugal) zirkuituan eskuratu du azken garaipena.

Aldaketetan eta zilindradetan handiagoak diren motoekin ari da aurtengo denboraldian; proba askotan bizpahiru urte zaharragoak diren mutilekin neurtzen ditu indarrak, eta badaki zer den horien aurretik geratzea.

Lau txapelketetan lehiatzen ari da aurtengo denboraldian. Oraingoz, Nafarroako txapela lortu du Minimoto delako 4,2 zaldiko kategorian.

Promo Aragon izena darabilen bi txapelketetan (minimotoko eta promo 90) lehen postuan da; eragozpen handirik gabe irabaziko ditu biak zurrerera, puntuaketetan oso urrun baitaizka bigarren sailkatuak.

Dani Rivas Galiziako motoziklistaren ohorez sortutako lehiaketan ere maiz zapaldu du podiuma Beñatek. Jokatu den azken proba irabazi zuen Bragako zirkuituan, irailaren 25ean. Egun, Pablo Olivaresek eusten dio Cup Dani Rivasen lehiaketako lehen postuari, 121 punturekin; Beñat bigarren da, 109 punturekin. Zuerako (Aragoi) zirkuituan jokatuko da azken proba erabakiorra, azaroaren 6an, eta Beñatek lehen postua eskuratzeko aukera ugari ditu.

Azkenik, Espainiako txapelketan ere badabil buru-belarri. Bosgarren da sailkapenean oraingoz. Ez dauka aurreragaitzeko aukerarik txapelketa ezberdinak egun berean jokatuko direlako.

Bateko eta besteko txapelketak kontuan hartuta, Andoaingo gaztetxoak punta-puntako pilotua dela ari da erakusten. Ez da ahaztu behar motoziklismoa estatu espainiarra mundu mailako potentzia dela motoziklismoan, eta etorkizuneko pi-



Beñat Fernandez moto gidari gaztea.

Bateko eta besteko txapelketak kontuan hartuta, Andoaingo gaztetxoak punta-puntako pilotua dela ari da erakusten

lotuen harrobia dela. Gaztetxoaren kategorietan jokatzen diren lehiaketak ere erreferentzialak dira mundu mailan; nazioartea ez dira pilotu gutxi bertako txapelketan parte hartu nahi izaten dutenak.

PERTSONA ETA PILOTU GISA HAZTEN ARI DA

Teknikoki zein psikologikoki gero eta trebezia handiagoa erakusten ari dela Beñat, ziurtatu du Imanolek. "Urte bereko beste edozein umeren antzekoa da, lagunekin jolasean ibiltzea edo tabletarekin aritzea du gogoko. Baina buzoa, eta kaskoa jantzi, eta motoaren gainean jartzen denean, robot baten antzera jarduten du. Gainera, garaipenak bezain ondo bideratzen ditu frustrazioak. Beti ikusten zaio gozatzeko, moto gainean dabileanean. Inoiz ez du esaten irabaziko duenak, zortea aldeko edukiz gero eta motoak ez badauka matxururik, orduan agian irabaziko duela adierazten du beti.

Hurrengo hiru urteak zirt edo zartekoak izango dira Beñaten etorkizuna bideratzeko garaian. Motoaren gainean ibiltzeko aparteko dohainak edukitzeaz gain, beste zenbat faktore aldeko izan behar baitira motorraren munduan aurrera egiteko. Eta hori diruarekin lotuta dago, laguntzaile eta esponsorizazioaren bitartez iritsi beharko luketenak.

Beñaten kasuan, punta-puntako pilotua dela erakusten jarraitu beharko du zirkuitu guztietan, eta ondoren aldeko faktore horien zain egon.

ANDOAINEN JARRAITZAILEAK

Andoaianen zaletasun handia dago abiadura handiko motoen lehiaketekin, eta asko dira Beñaten ibilbidea gertutik jarraitzen ari direnak. Garesti ateratzen da kirol hori praktikatzeko, eta horrexegatik, hainbat babesle bildu dira berari ahal den neurrian laguntzeko.

Tartean dira Kibor, Dani Instalaciones, Reformas Ferro, Azkain Motoak, Txitibar taberna, Keinu bordatuak, Ugal Compositer, Castrol, Shiro eta Palets Beñat. Haien ekarpena eskertu nahi dute.

Bestalde, errifak salgai jarri dira Amama Klaudia, Txitibar eta Olajauna tabernetan.

Urnieta eskubaloi taldearen denboraldi hasiera ona



Zuriñe Cao jokalaria.

oinarritu zen. Erasoan berriz apur bat trabatuta ibili arren, garaipena lortu zuten.

Legazpi 15-19 Urnieta

Jubenil neskek. Urnietarrei partidan sartzea kosta egin zitzaion, eta atsedendira arte estu-estu zegoen markagailua. Defentsari utsiz eta golak sartuz aldea handitu zuten, are eta handiagoa izan zitekeena zazpi metroko sei jaurtiketa huts egin ez balituzte.

Urnieta 17-10 Legazpi

Senior neskek. Ligari hasiera ona eman diote neskek, lehenengo partidan garaipena eskuratzeko lortu baitute. Garaipena defentsan lan bikainean eta atezainen jardun onean

Urnieta 23-37 Donosti La Salle Hondarribia 23-20 Urnieta

Jubenil mutilak. Bi partida asteburu berean, aurreko asteburuko bertan behera geratu eta gero. Lanean jarraitu beharko dute.

Ganbara saski taldea

Senior maila:

Ganbara 52-61 Zarautz
Bergara 55-53 Ganbara
Kadete maila:
Ganbara 45-59 ATSS
Axular 38-40 Ganbara

Datozen partidak

Allurralde kiroldegian:
Ganbara InfM-TAKE
Larunbata, 22. 12:15.
Ganbara SenM-Elgoibar
Larunbata, 22. 19:15.

Erregional Preferentea

4. jardunaldia

Emaitzak:
EAS08 1-2 Urnieta
Euskalduna 4-1 Orioko

5. jardunaldia, asteburuan:

Urnieta-Euskalduna
Larunbata, 15.

Sailkapena:

1. Euskalduna	10
2. Trintxerpe	9
3. Mariño	9
4. Añorga	8
5. Orioko	7
6. Urnieta	7

Eskubaloia, senior maila

1. jardunaldia, mutilak

Soraluze 21-24 Leizaran
Urnieta 19-24 Legazpi

2. jardunaldia, asteburuan:

Egia-Urnieta
Leizaran-Saieko

Urnieta igerilekuari buruzko inkesta

Erabiltzaileen gogobetetze maila ezagutzeko asmoz, Udalak urriko Berritu aldi-karian txertaturiko galdetegi batzera animatzen ditu herritarrek. Igerilekuetako 16 urtetik gorako urnietar erabiltzaileei zuzenduta dago. Galdetegi horiek urria-

ren 11tik 25era entregatu beharko dira, kaleetako ohi-ko buzoitan edota Lekaion, Bertan edo Kiroldegian jarriko diren kutxatan. Parte hartzaileen artean 2017. urteko udal kirol instalazioetako bazkide txartelaren %50eko beherapena zozkatuko da.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larumendi
Kultur Buzkaino

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

LAGUNTZAILEAK

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urrietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeaba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 13TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain**
- **Elle:**
Urriak 15: 19:30, 22:00.
Urriak 16: 19:30.
Urriak 17: 19:30, 22:00.
 - **Zipi y Zape**, haurrentzat:
Urriak 22. Euskaraz.

- Urnieta**
- Zinema bonoak eskuragarri daude Saroben.
- **Los Minions:**
Igandea, 16. 16:00, 18:30.
 - **Alvin y las ardillas:**
Igandea, 23. 16:00, 18:30.

Literatura

- Urnieta, Lekaio**
- Mikele Bustilloren “**Creo que te quiero**” liburuaren aurkezpen ekitaldia.
19:00.
Urriak 14, ostirala.
- Andoain, Bastero**
- Urt Zubiaurreren “**Izenik gabeko lurrak**”. Idazlea bertan izango da solasaldian parte hartzeko.
19:00-20:00.
Urriak 25, asteartea.

Ikuskizuna

- Andoain, Bastero**
- “**Faboo, el encanto de la imaginación**” haur ikuskizuna.
17:00. 4 euro.
Urriak 16, igandea.

Antzerkia

- Andoain, Bastero**
- “**La flaqueza del bolchevique**”. Gaztelaniaz.
21:30. Urriak 14, ostirala.
 - “**Jokoz kanpo**”: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Asier Sota. Euskaraz.
21:30. Urriak 21, ostirala.

Musika

- Andoain**
- **Eleanor McEvoy** irlandako musikaria.
20:00. 12 euro. Bastero.
Urriak 15, larunbata.

Dantza

- Andoain, Bastero**
- **Dantzas konpainia:**
Eresoinkaren itzalak.
20:00. Doan.
Urriak 19, asteazkena.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- **Luis Tolosaren arkitektura**
Urriaren 29ra bitarte.

Jaialdia

- Andoain, Bastero**
- “**Hodei Olaizola lagundu**” elkartzasuneko jaialdia. Musika jaialdi bikaina Andoaingo eragile ezagunekin.
11:00. 5 euro.
Urriak 22, larunbata.

Euskara

- Andoain**
- **Gurasolagun, Mintzalagun** egitasmoak martxan. Informazioa udaletxean edota AEK euskaltegian:
943 591 704.
943 300 831.
andoain.aek@gmail.com

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: **Ansa**. Ondarreta, 8.
Urnieta: **Odriozola**. Idiazabal, 18.
 - Gaez: **Urrutia**, Hernani.
Urriak 16, 17.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: URRIAK 20, OSTEGUNA

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak **Alex**, datorren urriaren 31n 11 urte! Muxuak, aita eta ama.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Ibai** etxeko mutikoak, 9 urte beteko ditu urriaren 14an, eta urriaren 12an bere izeba Olaiak. Zorionak bie eta muxu potoloak. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak **Beñat** Setien Iguaran zorionak zure 14. urtebetetzean. Egun polita opa dizugu, jarrai deza zula pausoz egiten. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Beste** urte bat gainean, jarrai bizitaz gozaten eta inguruko jendearekin disfrutatzen. 23 muxu pottolo, asko matte zatteu. Etxekoak, bihotz-bihotzez.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRI Erraza da, eta dohainik. Email: diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: **619 163 537**



Kamisetak merke-merke



Pasa zen irailaren 24an Andoaindarrak 400 ekimeneko kamisetak izan

zuten arrakasta ikusita, Andoaindarrak 2 euroko prezioan salgai jarri dituzte, agortu arte.

Materia organikoari buruzko informazioa udaletxean

Andoainen auzoz auzo materia organikoa biltzen has-teko informazioa eskaintzen ari dira. Udaletxean bertan informazioa edota materia organikoa biltzeko edukiontzia jaso daitezke:

Informazioa:
09:30-13:30 Astelehenetik ostiralera.
16:00-20:00 Astearte eta ostegunetan.
Telefonoa: 943 300 308.
organikoa@andoain.eus

Buruntzaldeko ibilbideen eguna datorren urriaren 23an

ANDOAIN – LASARTE-ORIA
Urdina eta urre zaharra; 7,9 km
Oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.

mendiko oinetakoa beharrezkoa da.

ANDOAIN – URNIETA
Urdina eta berdea; 4,8 km
Oinez edo bizikletaz egin daiteke.

LASARTE-ORIA-URNIETA
Urre zaharra eta berdea; 3,9 km
Oinez edo bizikletaz egin daiteke.

ANDOAIN – USURBIL
Berdea eta laranja; 14,9 km
Oinez soilik egin daiteke eta

LASARTE-USURBIL-AGINAGA
Urre zaharra eta laranja; 9,00 km
Santuene barrena Aginagako Mapil ingururaino; ibilbidea oinez edo bizikletaz egin daiteke.

Hodei Olaizola Lagundu

ELKARTASUN JAIA

MUSIKA JAIALDI BIKAINA:

Joseba eta Bakartxo dantza eskola,
Urki euskal dantza taldea, Zumba,
Lorrazak, Klaap dantza taldea,
Sevillana taldea,
bertsolariak.

Urriak 22, larunbata.

11:00. BASTERO. ANDOAIN

Sarrera: 5 €.

Salgai: Ataria Udal zerbitzua eta Urrats inprimategia.

